



18. zEnbakiA
belduRRaaa!

Ezertan hasi aurretik, zuen haurrak irakurzaletzeko, aholku txikitxo bat adierazi nahi genuke. Ondoren, zuen eskuetan egongo da ideia horren garapena:

Kontuan izan, irakurketak, barruko gogo eta irrikak bultzaturik emango den zerbait izan beharko duela beti, eta beraz, irakurtzera derrigortzen hasten garen unetik, gure helburuak guztiz aldatzen ari garela.

Emili Teixidorrek dioen lez: *“Irakurtzeko nahia kutsatzea beste edozein nahi kutsatzea bezalako da: hori lortzeko modu bakarra, ezarpenik gabe egiten da, kontaktuaren bidez eta imitazio eta lilurapenaren bidez”.*

Hortaz, gain, Pennacen aburuz irakurketa hautazkoa denean, alegia, aginduetatik aske kokatzen den momentuan, irakurketarako gerturatze-prozesu bat ematen da. Izan ere, aginduz egiten dena aspermen eta arbuioa zuzendurik baitago.

Horretarako, egin beharreko lana liburua eskaintzea edo zirikatzea izango da; izan ere, askatasun hori, irakurleak irakurtzen ari diren historia horren jabe sentitzeko oinarritzko premisa izango baita. Beraz, izan kontu!

IRAKURKETA GIDA

Azala aztertzen

Argi dago aldizkarien azalak duten garrantzia! Zertarako? Bada, haurra bertara gerturatzeko, irakurtzera animatzeko. Izan ere, irudi eta marrazki askotarikoak eta politikak eskaintzen dizkigute! Eta ezaugarri hori, guztiz erakargarria suertatzen da gure haurrentzat!

Hori horrela, oraingoan ere, azalarekin hasiko dugu irakurzaletzen! Has gaitezen bada!

Haurraren ondoan jarri aldizkaria irakurtzen. Haurra gerturatzen bada, galdetu ea zurekin irakurri nahi duen. Hala bada, galdetu ea zer irakurri nahi duen: azala, komikiak, amaierako orria, eta poliki-poliki joan aldizkarian murgiltzen!

Azalarekin jolasteko bide posible bat:

- Largabista beldurrez egotearen zergatia azaltzen duen istorio bat asmatu. Istorioa amaitzean, galdetu haurrari ea zer iruditzen zaion. Ondoren, animatu haurra berak uste duena adieraztera.



18. zEnbakiA
belduRRaaa!

Aurkibidea

Ezertan hasi aurretik, garrantzitsua da aldizkariak zer kontatu nahi digun jakitea, kontuan izanda, aldizkaria gai baten inguruan jorratzen dela!

Gure proposamena; aldizkaria haurrarekin konpartitzen hasi aurretik, aldizkariaren nondik - norakoaz jabetzea, testua irakurriz. Bestalde, ez dugu ahaztu behar aurkibidea irakurtzea garrantzitsua dela, izan ere, askotan ez diogu garrantzi berezirik ematen, ezta?

Irakurri haurrarekin batera aurkibidean agertzen zaizkigun izenburuak. Ez ahaztu gure nahia, haurra irakurtzeko motibatzea dela, hau horrela, gure beste eginkizunetako bat izango da irakurtzeko dagoen atal bakoitza “ondo saltzea”, hau da:

- “4.MARTIN BERTSO” izenburua irakurri eta ...
- o Hara, hara! Zer ote du oraingoan Martin Bertsok? Zeren beldur ote da? Purra, purra? Zer ote da?

Martin bertso

Ez ahaztu maitasun eta afektibitateak irakurketara gerturatzeko sekulako garrantzia duela! Beraz, irakurtzen jarraitu ahala, noiz behinka, eman laztan goxo bat haurrari, besarkatu, keinu egin ... izan ere, haurraren egoera emozionalak eragina izango baitu, irakurketaren hurrean izango duen jarreran!

Martin bertsoaren komikia zuk irakurtzeko proposamena bota haurrari, ea zer iruditzen zaion! Komikia zuk irakurtzea nahi badu, irakur iezaiozu, bestela utzi lasai.

Komikia irakurri ondoren, honako galderak hauek egin:

-“ Zer da langabezia?”

-“ Jolasean ahazten al dira beldurrak? Zergatik?”

Adierazi zure beldur bat haurrari eta ondoren, galdetu ea zeri dion berak beldurra eta zergatik.



18. ZENbAKia
belduRRaaa!

Filosofo txikiak

Badakizu filosofo txikien atalak, lantzen ari garen gaiaren inguruan pentsatzeko, hausnartzeko balio digula, ezta?

Kasu honetan, lehenik eta behin, irakurri bion artean ataltxoa, edo utzi berari irakurtzen! Amaitu ondoren, esan haurrari, filosofo txikien komikiaren inguruko galderatxo batzuk prestatuko dituzuela bion artean, eta galdera horiek familiako beste kideren bati egingo dizkiezuela ondoren.

Galdera posibleak:

-“ Zeren beldur dira gure lagunak?”

-“ Nork du beldur gehien? Eta gutxien? Zergatik?”

-“ Zer gertatzen zaio Peruri azkenean?”

Ondoren, aldizkariko irudiaz baliatuz, hausnartu zaudetenon artean, beldurraren inguruan: “Zer da beldurra? Zergatik izaten dugu beldurra?” Ariketa edo jolas hau, lagun artean, familia bazkari batean, eskolan ... egin dezakezue!

Pirritx, Porrotx eta Marimototx: “beldule daukat, beldule”

Etxean zaudela, zenbat aldiz konpartitu duzu irakurketa bi pertsona baino gehiagorekin? Askotan joera dugu bakarrik edo bi pertsonen artean irakurtzeko ezta?

Ukaezina da, haurrentzat gozamina dela bere gertukoekin ekintza ezberdinak gauzatzea. Beraz, oraingo honetan saia zaitezte irakurketa hiru kide edo gehiagoren artean konpartitzen, maitasunez beteriko giro goxo batean. Har dezala bakoitzak pertsonaia bat eta egin ezazue antzerki bat! ANIMATU! Oso ondo pasatuko duzue!

Zenbatak



18. ZENbAKia
belduRRaaa!

Zenbatak eta otsoa a ze komeria!

Gure haurrak duen irakurtzeko gaitasunaren arabera, zaila suerta liezaioke komikiaren ordena jarraitzea, hau horrela, gida ezazu zure haurra (zenbakiak jarritz, ahoz adieraziz ...)

Amaieran, galdera batzuk konpartitzea proposatzen dugu:

- “Zergatik dago Zerdño beldurtuta?”
- “Otsoaren beldur ote da? Zergatik?”
- “Zu otsoaren beldur al zara?”
- “Zure ustez animaliak beldurgarriak al dira?”
-

Lagun

Porrotx eta Lagunen atala irakurtzeko honako proposamen hau dugu zuentzako!

-Hartu zuk aldizkaria, eta irakurri altuan komikiaren izenburua.

-Haurrak komikia ikusi gabe, galdetu ea izenburu horren arabera, zein izan daitekeen gure laguntxoan istorioa oraingoan.

-Utzi lasai istorio bat kontatzen eta amaitzean irakur dezala komikia!

Posterra

Posterraren atala haurraren alderdi artistikoa garatzeko erabiliko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, posterra fotokopiatu beharko duzu. Zuri-beltzean fotokopiatzen baduzu, hobeto, horrela, tinta gutxiago gastatuko duzu. Eta horrez gain, ondoren, margoekin marraztu ahal izango ditu kolore horiek!

Eman fotokopia haurrari eta egin dezala nahi duena berarekin: margotu, moztu, idatzi, ... Gogoratu, sormenak sekulako garrantzia duela haurraren guztizko garapenean, beraz, saiatu sormena lantzeko bideak eratzen!

Largabista “GAUENARRAK” eta Landabista “SAUZARRAK”

Galde iezaiozu irakurketa zurekin konpartitzea nahi duen.



18. zenbakia
beldurraa!

Amaitzean, erakutsi iezaiozu benetako saguzarrak nolakoak diren, non bizi diren, zer jaten duten irudien bitartez. Eta azalpenaren ondoren, marraztu ezazue saguzar bat eta jarri izena marraztutako animalari!

Mari kalambre

Marikalambren komikia irakurtzeko, honako hau egin dezakezu:

-Erakutsi haurrari, komikiaren lehen irudia bakarrik.

-Lehen irudi horrez baliatuz, proposatu haurrari istorio bat idazteko. Istorioa luzea, motza ... izan daiteke.

-Nahi baduzu, haurra, ipuina idazten ari den bitartean, musika lasai pixka bat jarri diezaiokezu!

Istorioa idazten amaitzean, irakurri komikia haurrari eta galdetu:

-“Zein istorio duzu nahiago: zuk idatzirikoa ala komikikoa?” zergatik?”

Ane pirata eta Patakon “Uharte ezezagun batean”

Gogoratu ez dagoela aldizkaria egun batean irakurri beharrik!

Gure aholkua, astean irakurtzeko tarteak jartzea da egutegi batean markatuta, nola ez, haurrari ere galdetu egingo diogu noiz gustatuko litzaiokeen irakurketa tarteak antolatzea.

Atal honetan, fikzioari errealitate kutsua ematen saiatuko gara. Irudika ezazue irla bat, etxean dituzuen tarteekin. Jarri irudikatutako lekuan eserita eta konta iezaiozu komikia, zuk ondotxo dakizun bezala (ahots ezberdinak erabiliz, intonazio ezberdinekin, gorputz espresioa erabiliz ...)

Pupu eta lore

Pupu eta Loreren atala, kantuz egingo duzue! Galdetu haurrari ea berak abestu nahi duen ala nahiago duen biok batera abestea!



18. zEnbakiA
bElduRRaaa!

Abesteko, melodia batez baliatu beharko duzue! Zuen gustukoa den melodia bat aukeratu eta ekin kantuari.

Elkartasunaren koloreak

Behar bereziak? Hezitzaile bezala ba ote dakigu zer esan nahi duen?

Konpartitu ezazue irakurketa eta amaieran utzi iezaiozu aurrean duzun haurrari, behar bereziak zer esan nahi duen azaltzen.

Klabeledine

Utzi iezaiozu haurrari komikia esploratzen! Jarraian konta iezaiezu arrautzak nondik iristen diren gure etxeetara eta bide horretan zer nolako zerikusia daukan Eusko Labelak.

Jarraian, egin ezazue patata tortilla! Maitasunez betetakoa noski!!!

Hazi hezi

Atal honetan honako ekintza hauek gauzatu ditzakezu:

-Utzi askatasun osoa, nahi duena irakurtzeko.

-Ondoren, kolore gorriz dauden bi testuetatik, eskatu haurrari horietako bat aukeratzeko.

-Irakurri haurrari, aukeratu duen testua ahoz goran, eta irakurtzen amaitzean, galdetu ea ulertu duen ala ez.

-Ondoren galdetu ea laukitxo zurian dauden esaldietatik, berdea ala morea irakurri nahi duen eta eskatu ahoz gora, esaldia irakurtzeko.

-Ulertu duen galdetu, izan ere, Felipe Garridok dioen lez, gogoan izan behar dugu “ ... Irakurketaz hitz egiteko oinarriko baldintza testuaren ulermena ematea da... testuari ez baxaio zentzu eta esanahirik ematen, ez bada testua ulertzea lortzen, ez da irakurketa gauzatuko”.